



EDIKTUA

ENEKA MAIZ ULAIARrek, ETXARRI ARANAZko ALKATE UDALBURUA
NAIZENEZ,

JAKINARAZTEN DUT:

Udal honek ondoko zergen erreziboak kobratzera pasatuko dituela:

*** 2017ko JEZa**

Ordaintzeko borondatezko epea aurtengo ABENDUAREN 15EAN bukatuko da. Aipatu epe hori pasata, ordainagiriak Agentzi Exekutibora bidaliko direla, kobratzea premiamendu-bidetik burutzeko, Tributuen Foru Lege Orokorraren 117. artikuluan ezartzen diren errekarguekin.

Ordainketak helbideratuak dituztenei borondatezko epearen azkeneko egunean, bere kontuetan kargatuko zaie, eta gainerakoek Etxarri Aranzako banketxe batean ordaindu beharko dute.

Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna abenduaren 7a izango da.

Etxarri Aranatzan, 2017ko azaroaren 2an.

ALKATETZA
Eneka Maiz Ulaiar

